

Bost hilabeteen hiru aldiz “konkistatu” zuten harri koskorra

MEDITERRANEO ITSASOA, 1831KO UZTAILA. Siziliako hegoaldeko kostaldetik hogeit hamar mila dagoen Enpedokles urpeko sumendiak eztanda egin zuen. Erupzioaren ondorioz 1,6 kilometro koadroko uhartetxoak sortu zen, barruan bi aintzira zituen. Ez zen sumendiak irla bat sortzen zuen lehen aldia; Enpedoklesen erupzioaren aipamenik zaharrena Lehen Gerra Punikoaren garaikoa da, K.a. III. mendekoa. Baina fenomenoak ez zuen ordu arte 1831ko uda hartan piztutako interesik sortu.

Irlatxo berria uztailaren 12an ikusi zuten lehenengoz. Abuztuaren 2an, labari hozteko denborarik ia eman gabe, Humphrey Fleming Senhouse kapitain ingelesa Maltatik abiatu zen, lur zati berria konkistatzeko. Graham Island izena jarri zion irlari eta britainiar bandera ipini zuen sumendiak botatako material gogortuan. Abuztuaren 17an Bi Sizilietako errege Fernando II.aren ontzi bat iritsi zen uharte koskorra. Senhousek jarritako bandera kendu eta Bi Sizilietako erresumako armari korapilatsua utzi zuten haren orde. Izena ere aldatu zioten; Ferdinandea ipini zioten monarkaren omenez.

Hurbiltasun geografikoa kontuan hartuta behintzat, logikoa zirudien uharte siziliarren eskutan uzteak, baina denek ez zuten berdin pentsatzen. Irailaren 29an frantziar espedizio zientifiko batek bere bandera ipini zuen eta hirugarren izena eman zion lur zatia: Île Julia.

Europako potentziek lurralde zati txikiak ere metatzeko obsesioa muturrera eramane zuten, eta ia-ia nazioarteko gatazka piztu zuten irlatxoaren subiranotasuna medio. Baina azken hitza —edo, hobeto esanda, azkenurrekoa— naturak izan zuen. Laba solidotuak erraz higatzen ziren arroka porotsuak eratu zituen eta olatuen eraginez uharte desegiten joan zen. Abenduaren 17rako irlaren arrastorik ez zen geratzen ur mailaren gainetik. Bost hilabeteen hiru izen eta hiru jabe izan zituen lur zatitxo urpean geratu zen.

Orduz geroztik Enpedoklesen beste erupzioirik izan ez den arren, oraingoz behintzat AEBetako armadak



R. ACKERMAN

Enpedoklesen erupzioa eta uhartearen sorrera irudikatzen duen irarlana. Ingelesak izan ziren lehenak irla berria ikusten 1831ko uztailaren 12an eta handik gutxira lur zatiaren gaineko subiranotasuna eskatzen lehenak izan ziren.

izan du azken hitza aferan, ohitura duen legez. 1986an AEBetako aireko indarrek Libia bonbardatu zuten El Dorado Canyon operazioan. Libiarako bidean, bomba hegazkinek itzal susmagarria detektatu zuten itsasoan, eta etsaien itsaspekoa zelakoan, bonbardatu egin zuten. Airetik ikusten zena Graham, Ferdinandea eta Julia izandakoaren arrastoa besterik ez zen. ■



Arrastoak

Izarrak ikusteko denboraren makina



WWW.STELLARIUM.ORG webguneak ordenagailuan planetarioa izateko aukera ematen du. Duela hamar urte garatzen hasi ziren softwareak zerua 3Dn eta modu errealtan ikusteko aukera ematen du, begi hutsez edo binokular nahiz teleskopio bidez. Sistema eragile nagusiekin bateragarria da

programa, eta ahalmen handiko txartel grafikoa baino ez du eskatzen. Lurreko edozein puntutatik ikus daitezke izarrak, koordinatuak emanez gero, eta denboran aurrera zein atzera egiteko aukera ere ematen du; hala, historiako edozein data aukeratu eta egun hartan zeruak zer itxura zuen ikus daitezke. ■